IRAGARKIA, 2001eko azaroaren 6koa, Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Gipuzkoako Lurralde Bulegoko buruarena. Honen bidez jendaurreko informaziopean jartzen da Elgoibarko udalerrian egin beharreko honako proiektu hau: «Ferrerias» izeneko 13,2 kV-ko transformazio zentroa (Mota: txabola garai arrunta). 22304

**JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA**

IRAGARKIA, Lan eta Gizarte Segurantza zuzendariarena. Iragarki honen bidez aditzera ematen da «Asociación de Expertos de Protección (AEP)» izeneko elkartearen eraketari buruzko agiriak gordailatu direla. 22305

IRAGARKIA, Lan eta Gizarte Segurantza zuzendariarena. Iragarki honen bidez aditzera ematen da «ASCARVE (Asociación de Tratantes, Almacenes Frigoríficos y Salas de Despiece de Ganado Vacuno de Euskadi)» izeneko elkartearen aldaketari buruzko agiriak gordailutu direla. 22305

ANUNCIO de 6 de noviembre de 2001, del Jefe de la Oficina Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, por el que se somete a información pública el Proyecto de Centro de transformación a 13,2 K.V., tipo caseta elevada sencilla, denominado «Ferrerías» en el término municipal de Elgoibar. 22304

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL**

ANUNCIO del Director de Trabajo y Seguridad Social, por el que se hace público que ha sido depositada la documentación relativa a la constitución de la «Asociación de Expertos en Protección (A.E.P.)» 22305

ANUNCIO del Director de Trabajo y Seguridad Social, por el que se hace público que ha sido depositada la documentación relativa a la modificación de la «ASCARVE (Asociación de Tratantes, Almacenes Frigoríficos y Salas de Despiece de Ganado Vacuno de Euskadi)». 22305

# Xedapen Orokorrak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

### Zk-6973

AGINDUA, 2001eko azaroaren 7koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena. Agindu honen bidez, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren zentroetan epaiaren zain dauden adingabekoen eta zigortuta daudenen hezkuntzarako eskubidea bermatzeko neurriak arautzen dira.

Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko Lege Organikoak (LOGSE) (urriaren 3ko 1/1990) ezartzen duenez, «Hezkuntza-sistemek funtsezko eginkizunak betetzen dituzte norbanakoen eta gizartearen bizitzarentzat. Batzuen eta besteen garapen harmoniatsua gertatzeko aukerak hezkuntza-sistemek ematen duten heziketan oinarritzen dira...»

«...Hezkuntzaren bidez, gizartean bizitzea ahalbidetzen duten balioak transmititu eta gauzatzen dira, bereziki funtsezko eskubide eta askatasun guztiak errespetatzea. Horrez gain, elkarbizitza demokratikoaren eta elkarrekiko errespetuaren ohiturak hartzen dira, eta pertsona gizartean era arduratsuan jarduteko eta erakundeetan parte hartzeko prestatzen da...«

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

### N°-6973

ORDEN de 7 de noviembre de 2001, de los Consejeros de Educación, Universidades e Investigación y de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se regulan medidas que garanticen el derecho a la educación de menores infractores acogidos e internados en los centros dependientes del Departamento de Justicia, Empleo y Asuntos Sociales.

La Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo (LOGSE) determina que: «El sistema educativo desempeña funciones esenciales para la vida de los individuos y de las sociedades. Las posibilidades de desarrollo armónico de unos y de otras se asientan en la educación que aquéllos proporcionan...»

«...En la educación se transmiten y ejercitan los valores que hacen posible la vida en sociedad, singularmente el respeto a todos los derechos y libertades fundamentales, se adquieren los hábitos de convivencia democrática y de respeto mutuo, se prepara para la participación responsable en las distintas actividades e instancias sociales...»

«...Azken buruan, hezkuntzari esker aurrera egin daiteke bazterkeriaren eta desberdintasunaren aurkako borrokan, edozein izanda ere horien arrazoia (jaiotza, arraza, sexua, erlijioa edo iritzia) edo jatorria (familia edo gizartea, tradizioan zehar ekarriak edo gizartearen jardueran etengabe agertuak)...»

«...Hezkuntza oinarrizko gizarte-eskubidetzat jotzea, edo bestela esanda, herritar guztiengana zabaltzea, gizarte modernoetan sakonen errotu den lorpenetariko bat da...»

«...Herritarrei hezkuntza-eskubidea bermatzeak eta ikasleen aniztasunari erantzuteak izan behar dute kalitatezko hezkuntza-sistema baten kezka nagusiak, betiere eskolako ekintza guztien helburua eskolatutako ikasle guzti-guztiek albait gehien ikastea eta euren aukerak ahal bestean garatzea dela kontuan hartuta...»

Hala, aipatutako Legearen 1. artikuluak «oinarrizko irakaskuntza ezinbestekoa eta doakoa» izango dela ezartzen du. Orobat, 2. artikuluko 6. idatz-zatiak ezartzen duenez, «ikastetxe batera erregulartasunez joaterik ez dutenenen hezkuntzarako eskubidea bermatzeko, urrutiko hezkuntzako eskaintza garatuko da». Bestetik, 6. artikuluaren 2. idatz-zatian ezartzen denez, «ikasleek oinarrizko irakaskuntza egiteko ikastetxe arruntetan egoteko eskubidea izango dute, 18 urte izan arte».

Zehazkiago, Bosgarren Tituluan, Hezkuntzaren Desberdintasunak Orekatzeari buruzkoan, 36. artikuluaren 1. idatz-zatian, hau ezartzen da: «Hezkuntzarako eskubidea gauzatzean berdintasun-printzipioa betetze aldera, aginte publikoek egoera zailetan dauden pertsonen, taldeen eta eremuen gainean ekimen orekatzaileak egingo dituzte, eta horretarako behar diren baliabide ekonomikoak ipiniko dituzte». Aipatutako artikuluko 2. idatz-zatiak ezartzen duenez, «hezkuntza orekatzailearen politikek hezkuntza-sistemaren jarduna indartuko dute, zenbait faktorek (gizarte, ekonomia, kultura, geografia, etnia edo bestelakoek) eragindako desberdintasunak saihesteko».

Otsailaren 19ko Euskal Eskola Publikoaren 1/1993 Legearen 5 c). artikuluaren arabera, «Euskal Autonomia Erkidegoko herri-agintariek bere aginpideen esparruan dituzten egitekoen artean bereziki honako hau dute: «hezkuntzarako eskubidea benetan gauzatuko dela bermatzeko beharrezko neurriak hartzea».

Orobat, aipatutako legearen 10. artikuluaren 7. idatz-zatian hau ezartzen da: «Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak hitzarmenak egin ahal izango ditu gizarte- eta osasun-zerbitzuekin, orobat bestelako erakunde publiko nahiz pribatuekin ere, lege honetan adierazitako helburuen garapen osorako egitekoetan koordinazio handiagoa lortzeko».

«...La educación permite, en fin, avanzar en la lucha contra la discriminación y la desigualdad, sean éstas por razón de nacimiento, raza, sexo, religión u opinión, tengan un origen familiar o social, se arrastren tradicionalmente o aparezcan continuamente con la dinámica de la sociedad...»

«...La configuración de la educación como un derecho social básico, su extensión a todos los ciudadanos, es una de las conquistas demás hondo calado de las sociedades modernas...»

«...Un sistema educativo de calidad debe contemplar como problemas fundamentales el de garantizar a los ciudadanos su derecho a la educación y el de resolver la respuesta a la diversidad del alumnado, teniendo siempre presente que la finalidad de toda acción escolar es que todos y cada uno de los alumnos y alumnas escolarizados aprendan y desarrollen al máximo sus posibilidades...»

De esta forma la citada Ley en su artículo 1 establece que «La enseñanza básica será obligatoria y gratuita». Así mismo, en el artículo 2, apartado 6 establece que «Para garantizar el derecho a la educación a quienes no puedan asistir de modo regular a un centro docente, se desarrollará una oferta académica de educación a distancia.». En el artículo 6, apartado 2 establece que «Los alumnos tendrán derecho a permanecer en los centros ordinarios, cursando la enseñanza básica, hasta los 18 años de edad».

Más concretamente en el Título Quinto de la Compensación de las Desigualdades en la Educación en su artículo 36, apartado 1 establece que «Con el fin de hacer efectivo el principio de igualdad en el ejercicio del derecho a la educación, los Poderes Públicos desarrollarán las acciones de carácter compensatorio en relación con las personas, grupos y ámbitos territoriales que se encuentren en situaciones desfavorables y proveerán los recursos económicos para ello». En el apartado 2 del citado artículo estable que «Las políticas de educación compensatoria reforzarán la acción del sistema educativo de forma que se eviten las desigualdades derivadas de factores sociales, económicos, culturales, geográficos, étnicos o de otra índole».

La Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca en su artículo 5 establece que «Corresponden a los poderes públicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el ámbito de sus respectivas competencias las siguientes funciones:» y el apartado c) de dicho artículo se enuncia expresamente « La adopción de las medidas necesarias que garanticen la realización efectiva del derecho a la educación».

Así mismo la citada Ley en el artículo 10, apartado 7 se establece que «El Departamento de Educación, Universidades e Investigación podrá suscribir convenios con los servicios sociales o sanitarios, así como con otras instituciones públicas o privadas, a fin de lograr una mayor coordinación de las actividades de desarrollo integral de los objetivos señalados en esta Ley».

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, xedapen horiek betetzeko eta beste zenbait arazo konpontzeko, legegintzako, antolakuntzako eta hezkuntzako zenbait neurri garatu ditu, besteak beste, beste sail eta erakundeekin lankidetza-hitzarmenak ezartzea.

Hala, ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuaren (hain zuzen,eskola ulerkor eta integratzailearen esparruan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna antolatzen duenak) 24. artikuluan «eskolan moldatzeko ezintasun larriaren ondorioz hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekin» hartu beharreko neurriak zehazten dira. Neurri horiei dagokionez, 3. idatz-zatian ondorengo hau azaltzen da: «neurri arruntak agortu ondoren Eskolatzeko Programa Osagarriak ezarri ahal izango dira, salbuespen gisa eta behin-behinerako. Programa horien bidez, hain zuzen, ikasleari bere hezkuntza-prozesuarekiko jarrera positiboak garatzen lagunduko zaizkio, baita bere taldeko lagunenganako, irakasleenganako eta gizarte-ingurunearekiko jarrera positiboak ere. Horrenbestez, programa osagarri horien helburua ikasleari eskola munduan eta gizartean moldatzen laguntzea da, azken finean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako helburuak lor ditzan.»

Bestetik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1998ko uztailaren 30eko Aginduak (gizarte edo kulturaren ikuspegitik besteak baino egoera txarragoan diren ikasleentzat eta eskolara egokitzeko zailtasun handiak dauzkaten ikasleentzat hezkuntzaren arloko hainbat ekintza eta neurri arautzen ditu) 14. artikuluan ezartzen duenez,

«1.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikasle jakin batzuen premiei erantzuna emateko bide arrunt eta berezi guztiak agortu ondoren, eta gizarte-baldintza txarretan diren edo eskolara egokitzeko arazo larriak dituzten ikasleei (berdin bakar bati nahiz talde oso bati( erantzunak emateko, salbuespen modura, berariazko erantzunak antolatu ahal izango dira, Eskolatzeko Programa Osagarrien bidez eta hamasei urte baino gutxiagoko ikasleentzat, beti ere.

2.– Eskolatzeko Programa Osagarriek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ikasteko aukera emango dute, asteko eskola-orduetatik tarte bat hartuta batzuetan, eta bolada batean denbora guztia hartarako erabiliz, beste batzuetan. Kanpoko unitate berariazkoak erabiliko ditugu, eta garrantzirik handiena ohiko sistemara itzultzeko edo heldutasunera eta bizimodu aktibora heltzeko faltan dituzten edukiei emango diegu. Curriculuma ikasleen beharretara egokitu beharko da, baina Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak garatu behar dituen oinarrizko gaitasunak bazterrean utzi gabe. Edonola ere, programa horietan parte hartzen duten ikasleak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeren batean

El Departamento de Educación, Universidades e Investigación para dar cumplimiento a estas disposiciones y para dar respuesta a determinados problemas ha desarrollado diferentes medidas legislativas, organizativas y educativas entre las que se incluye el establecimiento de marcos de colaboración con otros Departamentos e Instituciones.

Así el Decreto 118/1998, de 23 de junio, de ordenación de la respuesta educativa al alumnado con necesidades educativas especiales, en el marco de una escuela comprensiva e integradora, en su artículo 24 explícita las medidas con el «alumnado con necesidades educativas especiales derivadas de situaciones de grave inadaptación escolar». Entre tales medidas, en el apartado 3 expone que «Una vez agotadas las medidas ordinarias se podrán establecer, de manera excepcional y con carácter temporal, Programas de escolarización Complementaria que ayuden a este alumnado a desarrollar actitudes positivas hacia su proceso educativo, hacia sus compañeros y compañeras, profesorado y su entorno social, de manera que avance en la consecución del ajuste personal y social y pueda alcanzar en la medida de lo posible los objetivos de la Educación Secundaria Obligatoria»

Por otra parte, la Orden de 30 de julio de 1998, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se regula la acción educativa para el alumnado que se encuentre en situaciones sociales o culturales desfavorecidas y las medidas de intervención educativa para el alumnado que manifieste dificultades graves de adaptación escolar en su artículo 14 establece que

«1.– En la Educación secundaria Obligatoria, una vez agotadas todas las vías ordinarias y extraordinarias de respuesta a las necesidades educativas de determinados alumnos y alumnas y para responder a alumnos y alumnas o colectivos de ellos en especial dificultad social o con graves dificultades de adaptación a la escuela se podrá arbitrar con carácter excepcional un tratamiento específico por medio de Programas Complementarios de Escolarización destinados a alumnado de menos de 16 años.

2.– Los Programas Complementarios de Escolarización ofertarán la oportunidad de cursar la Educación secundaria Obligatoria, bien durante un tiempo semanal del horario del alumno o alumna bien a tiempo completo durante un período determinado en unidades específicas de carácter externo, haciendo hincapié en aquellos aspectos que resulten más aptos para su readaptación hacia el sistema ordinario o para su acceso a la vida adulta y activa, con un curriculum adaptado a sus necesidades y sin renunciar a las capacidades básicas que la Educación Secundaria Obligatoria debe desarrollar. En todo caso, el alumnado que participe en estos programas estará matriculado en un centro de Educación

egongo dira matrikulatuta eta ikastetxe horretako ikasleak izango dira, ondorio guztietarako».

Azkenik, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren 23. artikuluko 2. idatz-zatiak honako hau ezartzen du: «Derrigorrezko bigarren mailako hezkuntzaren helburuak lortzen ez duten ikasleentzat gizarte-bermeko berariazko programak antolatuko dira. Programa berezi horien xedea ikasleari oinarrizko hezkuntza eta hezkuntza profesionala eskaintzea izango da, bizitza aktiboan sar dadin edo lege honen bidez arautudako zenbait ikasketetan jarraitzeko aukera izan dezan, bereziki, maila ertaineko berariazko hezkuntzako ikasketak, eta horretarako lege honen 32.1. artikuluak jasotzen duen prozedurari jarraitu beharko zaio».

Gorago azaldutakoaz gain, kontuan hartu behar dugu Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak neurri judizialen bat bete behar duten adingabekoentzako hainbat egoitza-zentro dituela, hain zuzen honako hauek:

- Vitoria-Gasteizko Andoiu heziketa-zentroa, Araban: 7 laguntzako tokia du.

- Aramaioko Mendixola heziketa-zentroa, Araban: 12 laguntzako tokia du.

- Ortuellako Miguel Angel Remírez heziketa-zentroa, Bizkaian: 8 lagunentzako tokia du.

- Zumarragako heziketa zentroa, Gipuzkoan: 40 toki ditu. Agindu hau indarrean hasten den unean bere instalazioak berregiten ari dira. Horren ondorioz, Agindu honetan jasotako guztiak, Zumarragako zentroari dagokionez, ez dira aplikatuko zentroa berriro ireki arte.

Bestetik, aipatutako zentroek badituzte ikasgelak, tailer bat edo batzuk, kasuan kasuko, baita Eskolatzeko Programa Osagarriak eta Lanbideko Hastapenetako Programak emateko irakasle adituak ere.

Aipatutako zentroetan hartutako pertsona gehienek agindu judizialaren bidez emandako barneratze-neurri bat betetzen ari dira, zeinaren ondorioz, ezin baitira heziketa-zentroetatik atera; beste kasu batzuetan, berriz, epaileak ezarritako barneratzeko neurria modu irekian bete behar duten arren, ikastetxeetan sartu ezinean dabiltza, zentroa kokatzen den tokian baliabide-eskasia dagoelako: hizkuntza-eredua dela eta, barneratzeko agindua gertatzen den urtaroa dela eta, ikasleak dituen eskolako atzerapen larriak direla eta, eta abar.

Horregatik guztiarengatik honako hau,

AGINDU DUGU:

*1.Artikulua–* Helburua.

1.– Agindu honen helburua da batetik ikastetxe arruntetan eskolatzerik ez duten eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren baitako zentroetan hartu-

secundaria Obligatoria y será alumno del mismo a todos los efectos.»

Finalmente, la Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo en su artículo 23, apartado 2 establece que «Para los alumnos que no alcancen los objetivos de la educación secundaria obligatoria se organizarán programas específicos de garantía social, con el fin de proporcionarles una formación básica y profesional que les permita incorporarse a la vida activa o proseguir sus estudios en las distintas enseñanzas reguladas en esta ley y, especialmente, en la formación específica de grado medio a través del procedimiento que prevé el artículo 32.1 de la presente ley.

Teniendo en cuenta que El Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social es titular de los siguientes centros residenciales para personas menores de edad que deban cumplir una medida judicial:

C.E. Andoiu en Vitoria-Gasteiz, Araba con capacidad para 7 plazas

C.E.Mendixola en Aramaio, Araba con capacidad para 12 plazas.

C.E. Miguel Angel Remírez en Ortuella (Bizkaia) con capacidad para 8 plazas

C.E. Zumarraga (Gipuzkoa) con capacidad para 40 plazas. Este Centro se encuentra, a fecha de la entrada en vigor de la presente Orden, en fase de reconstrucción de sus instalaciones. Ello exige que las previsiones contenidas en la Orden para todos los centros residenciales del Departamento se demoren en el presente caso a su efectiva entrada en funcionamiento.

Y que los citados centros disponen de aula escolar, taller o talleres en su caso y profesorado especialista para poder impartir los Programas Complementarios de Escolarización y Programas de Iniciación Profesional.

Y dado que una parte de las personas que están acogidas en los citados centros están cumpliendo una medida de internamiento dictada por orden judicial en virtud de la cual no pueden acceder a los centros escolares y que, en otros casos, están cumpliendo una medida de internamiento en régimen abierto pero no pueden acceder a los centros escolares por falta de recursos de la zona donde está situado el centro: modelo lingüístico, época del año en que se produce la orden de internamiento, retraso escolar grave etc.

Por todo ello,

DISPONEMOS:

***Artículo 1.–*** Objeto.

1.– Es objeto de la presente Orden garantizar el derecho a la escolarización del alumnado menor de 16 años acogido e internado en centros dependientes del Depar-

tako eta barneratuta dauden 16 urtetik beherako ikasleen eskolatzeko eskubidea bermatzea, Eskolatzeko Programa Osagarriak eginez, eta, gainera, 20 urte baino gutxiago dutenek harrera-zentroan bertan Lanbideko Hastapenetako Programaren bat jarraitzerik izan dezatela.

2.-Bestelako ikasketak egiten dituzten 14 eta 20 urte bitarteko ikasleek indarrean dauden arauen babesean burutu ahal izango dituzte.

2.– Aplikazio-eremua.

Horren ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ondoko heziketa-zentroei Eskolatzeko Programa Osagarriak eta Lanbideko Hastapenetako Programak emateko baimena ematen die inguruko ikastetxe batean sartzerik ez duten ikasleei: Vitoria-Gasteizko (Araba) Andoiu heziketa-zentroari, Aramaioko (Araba) Mendixola heziketa-zentroari, Ortuellako (Bizkaia) Miguel Angel Remírez heziketa-zentroari eta Zumarragako heziketa-zentroari (Gipuzkoa).

*3. artikulua.*– Hartzaileak.

1.– Eskolatzeko Programa Osagarriak ikastetxe arruntean egiterik ez duten 16 urtetik beherako ikasleentzat prestatuak dira. Dena den, ikasle horiek euren bizitokitik gertu dagoen EAEko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeren batean matrikulatuta egongo dira, edo Urrutiko Hezkuntzako ikastetxe batean, eta, ondorio guztietarako, ikastetxe horretako ikasletzat hartuko dira.

2.– Lanbideko Hastapenetako Programak 16 eta 20 urte bitarteko ikasleentzat dira. Harrera-zentro bera euren erreferentzia-zentroa izango da ondorio guztietarako.

*4. artikulua*– Baliabideak.

1.– Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak finantziatuko ditu Eskolatzeko Programa Osagarriak eta Lanbideko Hastapenetako Programak garatzeko behar diren irakasleak, materialak eta lokalak.

2.– Eskolatzeko Programa Osagarriak eta Lanbideko Hastapenetako Programak garatzeko baimena duten ikastetxeek, gutxienez, honako instalazio eta baliabide hauek izango dituzte:

– Jakintza gaiak irakasteko ikasgela bat.

– Lanbide-ikasgela.
– Jakintza gaien irakaslea: psikologoa, pedagogoa, irakaslea edo gizarte-hezitzailea.
– Lanbide irakasle bat.

*5. artikulua.*– Jarraipena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko pedagogia berrikuntzako lurraldeko arduradunek edo haiek ordezkatutako pertsonek ikuskatuko dute zelan gara-

tamento de Justicia, Empleo y Asuntos Sociales que no puedan ser escolarizados en centros ordinarios mediante la realización de Programas Complementarios de Escolarización y posibilitar que quienes tengan menos de 20 años puedan seguir algún Programa de Iniciación Profesional en el propio centro de acogida.

2.– Los/as alumnos/as entre 14 a 20 años que cursen otros estudios, se acogerán a la normativa vigente.

*Artículo 2.*– Ámbito de aplicación.

En su virtud El Departamento de Educación, Universidades e Investigación autoriza a los centros C.E. Andoiu de Vitoria-Gasteiz, (Araba), C.E. Mendixola en Aramaio (Araba), C.E. Miguel Angel Remírez en Ortuella (Bizkaia) y C.E. Zumarraga (Gipuzkoa) a impartir Programas Complementarios de Escolarización y Programas de Iniciación Profesional para aquellos alumnos que no puedan acceder a un centro escolar de la zona.

*Artículo 3.*– Destinatarios.

1.– Los Programas Complementarios de Escolarización estarán destinados a los alumnos/as menores de 16 años que no puedan realizarlos en un centro ordinario. No obstante este alumnado estará matriculado bien en un centro de Educación Secundaria Obligatoria próximo a su lugar de residencia, bien en un Centro de Educación a Distancia (CEBAD) de la CAPV, siendo alumno/a del centro a todos los efectos.

2.– Los Programas de Iniciación Profesional estarán destinados al alumnado mayor de 16 años y menor de 20 años que deseen realizarlos. El propio centro de acogida será su centro de referencia a todos los efectos.

*Artículo 4.*– Recursos.

1.– El Departamento de Justicia, Empleo y Asuntos Sociales se hará cargo de la financiación correspondiente al profesorado, materiales y mantenimiento de los locales necesarios para desarrollar los Programa Complementario de Escolarización y los Programas de Iniciación Profesional.

2.– Para el desarrollo de los Programas Complementario de Escolarización y los Programas de Iniciación Profesional los centros autorizados contarán, al menos, con las siguientes instalaciones y recursos:

– Un aula escolar para la impartición de áreas instrumentales
– Un aula taller
– Un profesor/a generalista: psicólogo, pedagogo, maestro o educador social
– Un profesor/a de taller.

*Artículo 5.*– Seguimiento.

El seguimiento del desarrollo de los Programas de Escolarización Complementaria y los Programas de Iniciación Profesional en estos centros por parte del De-

tzen ari diren Eskolatze Osagarriaren Programak eta Lanbideko Hastapeneko Programak.

XEDAPEN IRAGANKORRA

2. artikuluan jasotako baimena atzeratuta geratzen da Zumarragako (Gipuzkoa) Ikastetxerako, berriro ireki arte.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENA

Hezkuntza-berrikuntzan eskuduna den zuzendaritzari ahalmena ematen zaio eskolatzeko programa osagarriak eta lanbideko hastapenetako programak baimentzeko neurri judizial bat bete behar duten adingabekoentzako egoitza-zentroetan. Zentro horiek Justizia Sailaren dagokion zuzendaritzaren agindupean daude.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko azaroaren 7a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
ANJELES IZTUETA AZKUE.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

partamento de Educación, Universidades e Investigación se realizará por los responsables territoriales de Renovación Pedagógica o persona en quien delegue.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

La autorización contemplada en el artículo 2 queda demorada, para el C.E. Zumarraga (Gipuzkoa) a su efectiva entrada en funcionamiento.

DISPOSICIÓN FINAL PRIMERA

Se faculta a la Dirección competente en materia de innovación educativa para autorizar la impartición de Programas Complementarios de Escolarización y Programas de Iniciación Profesional en los Centros Residenciales para las personas menores de edad que deban cumplir una medida judicial cuya titularidad corresponda al Departamento competente en materia de Justicia.

DISPOSICIÓN FINAL SEGUNDA

La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco

En Vitoria-Gasteiz, a 7 de noviembre de 2001.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
ANJELES IZTUETA AZKUE.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

## INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA OSASUN SAILA LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

## Zk-6974

329/2001 DEKRETUA, azaroaren 27koa, jateko animalien entzefalopatia espongiforme kutsakorrak aurreikusi, zaindu eta kontrolatzeko neurriena.

Urte batzuetatik hona gizaki eta animalietan hainbat entzefalopatia espongiforme kutsakor agertu direla ikusi ahal izan da. Kontuan hartuta gizaki eta animalien osasunerako izan dezaketen arriskua, Epizootien Nazioarteko Bulegoaren irizpideei jarraiki, gaitz horiek

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO DEPARTAMENTO DE SANIDAD DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE Y DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

## N°-6974

DECRETO 329/2001, de 27 de noviembre, de medidas de prevención, vigilancia y control de las encefalopatías espongiformes transmisibles de los animales de abasto.

Desde hace unos cuantos años se viene observando la aparición de varias encefalopatías espongiformes transmisibles (EET) en seres humanos y en animales. Habida cuenta del riesgo que constituyen para la salud humana y animal, siguiendo los criterios de la Oficina